

Mikel Irizar

KOMUNIKAZIOAN ARITUA ♦



DANI BLANCO

Ilusioa, puxika eta lokarria

EUSKAL HIZTUNOK baditugu gure ajeak, baina beste hainbat estrukturalak dira, iraunkorrak. Euskara hizkuntza txikia da inguratzen dutenen ondoan, eta inertiak kontra ditu ia beti. Etengabeko indar horri aurre egiteko beharrezkoa dugu hizkuntzarekiko grina, hizkuntza komunitatea eraldatzeko gogoia berdintasunera bidean.

Baina, grina indartzearekin batera, komeni zaigu euskaltzaleok normalizazioa irudikatzea arnas luzeko prozesu baten modura, itolarririk gabe eta bizipozez hartu beharrezkoa, gabeziarik ardua elikatuko diguna eta lorpenetarik, ilusioa. Ez da erreferentzia txarra Karmelo Ayestaren *Goza daiteke gehiago* liburua.

Ilusioa pizteko ahaleginean, ordea, badira bi arrisku saihestu beharrekoak: konformismoa eta ameskeria.

Konformismoak amets egiteari uko egiten dio eta egingarri ikusten denaren mugak azpimarratzen ditu aldiro. Baina euskararen historiak argi erakusten du zenbateraino izan den eraginkorra muga horien gainetik begirada luzatzea eta haragoko ametsen bila joatea. Esaterako, bertako erakundeak sortu eta administrazio zati asko heredatu zirenean, hainbat kasutan handira egin zen apustu eta erakundeak euskalduntzeko planak ezarri ziren. Eskerrak! Konformismoak

ez zukeen ekarriko gaur egun zenbait administrazio-tan dugun egoera ona —kontrasteak, administrazioan bertan— eta gauza bera esan daiteke ikastolez, komunikabideez, euskara elkarteaz eta abarrez.

Bere aldetik, ameskeriak berehala bete nahi du ametsa, uko eginda egingarritasuna eta erritmoak aztertzeari. Azken hamarkadetan ameskeriaren adibi-

de ugari ikusi ditugu, eta esango nuke hainbat ingurutan sumatzen den frustrazio puntua ere ameskeriak eragindakoa dela, ilargia eskuratu ez izanaren zaputzak. Frustrazioa saihesteko, beharrezkoa da ametsari forma zehatza ematea eta, ahal bada, zenbakitan jartzea; eta gero ametsera daraman bidea marraztea: epeak eta erritmoak, ibilbidea eta tarteko helmugak, funtzioak eta eragileak, baliabideak eta antolamendua.

Horrela bakarrik kudeatu daiteke ondo bilakaera.

Ametsa behar dugu eta doikuntza, airez betetako puxika ameslaria eta lurrari ongi itsatsitako lokarria. Puxikak lokarria jarriko du eguzkiari begira, eta lokarriak puxikari eutsiko dio, haizeak eraman ez dezan. Amets doitua behar dugu: begirada luzaraziko eta handira jokaraziko digun ametsa; eta amestutakoa lortzea eta lortutakoz gozatzea ahalbidetuko digun doikuntza. ■

Frustrazioa saihesteko, beharrezkoa da ametsari forma zehatza ematea eta, ahal bada, zenbakitan jartzea; eta gero ametsera daraman bidea marraztea



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Kanpainen

SARE SOZIALETAKO liskarrei ezin zaie benetako liskar edo eztabaida deitu. Sare sozialetako arrazoiaren aldeko hartu-eman horiek, handiagoa nork ote duen (jarraitzaile kopuruaz ari naiz) argitzeko eztabaidak izan ohi dira normalean.

Hauteskunde bezperetan halakoak propagandaren eta kanpainen oihartzuna bilakatzen dira bat-batean, edo kontra-kanpainenak (erredundantea ez bada esatea hori bera dela kanpaina).

Bi egunetan, maitea behar nukeen koalizio gertukoari bi kritika egitea otu zait twitter bidez. Koalizioaren muturreko defentsak platonikoa egin zuen batekin topatu

nintzen. Ez genuen elkar ulertu. Tutik ez. *Sozialisto* batzuen nire txioaren erabilera iritsi zitzaidan beste baten bidez. Edozein kasutan, batere gustura ez geratzeko bi erreakzio.

Hala ere, uste dut, mugimendu soziale-tako kideoi, botoa sartzen dugun lekuan sartzen dugula ere (sartzen badugu), alderdiei eta kanpainari adi egotea dagokigula.

Argi geratu zait autokritika ez dela gure fuertea (gutxiago “publikoan”), eta ulertzeko gaitasun handirik ez dugula. Ados beraz. Agur txioak, tabernetan egingo dugu topo, betiko lez. ■

